

JARDUN

Banakako Jardun Plana

HITZAURREA	2
1. . HELBURUAK	3
2. APLIKAZIO EREMUA	3
3. LANALDI OSOKO IRAKASLE-IKERTZAILEEN JARDUERA AKADEMIKOEN BANAKETA	4
4. IRAKATS AHALMENAK	5
IAGd – irakats ahalmen gordina	5
IAGb = irakats ahalmen garbia	6
UIA = urteko irakats ahalmena	6
5. IRAKATS LANA	8
6. IRAKATS LANAREN BANAKETA SAIL BAKOITZEAN	9
7. GESTIORAKO SISTEMA INFORMATIKOA	10
I. ERANSKINA: JARDUN GEHIGARRI GISA KONTUAN HARTZEN DIREN JARDUERAK	11
II. ERANSKINA: URTEKO IRAKATS LAN GISA KONTUAN HARTZEN DIREN JARDUERAK	21
III. ERANSKINA: GERORA AITORTURIKO IRAKATS LANA	23
IV. ERANSKINA: NOIZ EGINDAKOAK DIREN 2026/2027 IKASTURTEAN AITORTUKO DIREN MEREZIMENDUAK	27
V. ERANSKINA: UIAren KALKULUAREN ADIBIDEAK	29
VI. ERANSKINA: JARDUN PLANAREN APLIKAZIOA IRAKASLE-IKERTZAILE MOTA BAKOTZARI	30

HITZAURREA

Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoak (USLO) modu nabarmenean aldatu du irakasle-ikertzaileen eginbeharren esparru legala, bai funtzionarioena bai lan kontratudunena, eta unibertsitateak behartu ditu haien araubideak egokitzera, 2024/2025 ikasturtearen hasieratik aplikatzeko, bosgarren xedapen iragankorrean (aldi baterako kontratua duten lan kontratudunak) eta zazpigarrenean (irakasle elkartuak) jasotako salbuespenekin.

Irakasle-ikertzaile funtzionarioei dagokienez, USLOren 75. artikulua 2. atalaren arabera, **lanaldi osoa duten unibertsitateko irakasleek gehienez 240 ordu eta gutxienez 120 ordu eman beharko dituzte irakats lanean, ikasturte bakoitzeko urteko lanaldiaren barruan.** Unibertsitateak tarte hori aldatu ahal izango du, honako hauek lortzeko:

- a) Mendeko pertsonen zaintzaren ondorioz emakumeen eta gizonen artean dauden desparekotasunak orekatzea.
- b) Irakats lanak bateragarri egitea kargu akademikoekin eta unibertsitatearentzat interesa duten proiektuetako erantzukizunekin, Estatutuek ezarritako moduan.
- c) Enplegatu publikoen interesak ordezkatzan dituzten irakasleen zereginak ahalbidetzea.

USLOren 75. artikulua, gainera, dio irakasleen eginbehar akademikoak jasoko direla urteko banakako jardun planetan, plan horiek errespetatu egingo dituztela irakasle funtzionarioen garapen profesionala, aukera berdintasuna eta emaitza berdintasuna (75.3), eta aurreratzen du (75.4 art.) unibertsitateko irakasle-ikertzaileen Estatutuan ezarriko dela irakasle-ikertzaile funtzionarioen eginbeharren araubide orokorra.

Lan kontratudun irakasle-ikertzaileen eginbeharrei dagokionez, hiru modutan arautzen du USLOk:

- a) Alde batetik, erreferentzia eginez oro har 75. artikulua ezarritakoari (77.4 art.).
- b) Bestetik, espezifikoki araututa lan kontratudun irakasleen zenbait modalitate (irakasle laguntzaile doktoreak, 75. art.; irakasle elkartuak, 79. art.; ordezeko irakasleak, 80. art.); eta, hirugarrenik
- c) Azkenik, honako hau ezarritik: lege organikoa indarrean sartzean aldi baterako kontratua duten irakasle-ikertzaileek egoera berean jarraituko dutela, kontratua amaitu arte, eta aplikatzen jarraituko zaizkiela kontratua egin zitzaienean indarrean zegoen kontratu modalitate bakoitzerako arau espezifikoak.

Bestetik, UPV/EHUren Estatutuen 25.2 artikulua 2. atalaren arabera: "Gobernu Kontseiluak zehaztuko ditu irakaskuntzaren alorreko betekizunak eta eskolak esleitzeko irizpide orokorrak eta, beharrezkoa izanez gero, ikerketaren alorreko betekizunak. Kontuan hartuko ditu, horretarako, irakasleen arduraldiak eta izendapen edo kontratuetan beren-beregi jaso ahal izango diren betebeharrak. Edonola ere, legeria orokorrean eta autonomikoan xedatutakoa beteko da beti. Gobernu Kontseiluak, halaber, irakasleek lanaldian zehar aurrera eraman ahal izango dituzten beste jarduerari buruzko irizpideak zehaztuko ditu".

Horiek horrela, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu behar du banakako jardun planen baldintzak arautuko dituen **Jardun** planaren eguneraketa, 2026/2027 ikasturtearen hasieratik aurrera aplikatzekoa. **Jardun** planak ezartzen du nola zehaztu behar diren irakasle-ikertzaileen irakats betebeharrak ikasturte bakoitzean.

1. . HELBURUAK

Jardunen helburu nagusia da USLOra egokitutako dokumentu batean biltzea irakasle-ikertzaileen banakako jardun planetan aplikatu beharreko baldintzak.

Kontuan izanik aurreko esperientziak (batik bat banakako jardun planak eta irakaslan banatzeko arautegiak), oso garrantzitsua da irakasle-ikertzaileek jakitea zeintzuk diren beren ahalmen eta betebeharrak akademikoak, eta, hala dagokionean, zer jarduerak alda ditzaketen ikasturtean zehar eman beharreko eskola orduak, **UPV/EHU**ren helburu estrategikoekin bat etortzeagatik.

JARDUNen bidez, modulatu egin daiteke irakasle-ikertzaileen irakats ahalmena, aintzat harturik lege esparrua, unibertsitatearen helburu estrategikoak eta aurrekontu langa, horrek mugatzen baititu unibertsitateak bere esku dituen baliabideak. Dokumentu hau idaztean, tentu handiz hartu dira kontuan hiru osagai horiek, eta halaxe egin beharko da aurrerantzean ere aldaketak proposatzerakoan.

2. APLIKAZIO EREMUA

Proposamen honetan ahalegindu gara UPV/EHUko irakasle-ikertzaile guztien kasuistika aintzat hartzen, soilik irakasleak edo soilik ikertzaileak direnena barne. Hala ere, arau batzuk lanaldi osoko irakasle-ikertzaile doktoreei baino ez zaizkie aplikatuko, hau da, arauz edo bitarteko moduan lanpostuen zerrendako plaza huts batean lanaldi osoz dauden eta baldintza jakin batzuk betetzen dituzten irakasle-ikertzaileei.

Honako hauek dira USLOk aipatzen dituen irakasle-ikertzaileen figurak:

- Unibertsitateko irakasleen kidegoetako irakasleak / Irakasle-ikertzaile funtzionarioak
- Lan kontratudun irakasle-ikertzaileak
 - o Lan kontratudun IRI iraunkorrak
 - o Jarraitzeko bokazioa duten aldi baterako IRIak
 - Irakasle laguntzaile doktoreak
 - Irakasle elkartuak
 - o Aldi baterako IRI iragankorrak
 - Ordezko irakasleak
 - Irakasle emerituak
 - Irakasle bisitariak

- Itzal handiko irakasleak
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legean (14/2011 Legea, ekainaren 1ekoa) jasotako figurak.

Horiekin batera, aurretik datozen beste kontratu figura batzuk daude, iraungitze bidean. UPV/EHUren kasuan:

- Unibertsitateko edo unibertsitate eskolako irakasle lankideak
- Irakasle atxikiak
- Bitarteko lan kontratudun irakasleak
- Irakasle laguntzaileak
- SHEE irakasleak

3. LANALDI OSOKO IRAKASLE-IKERTZAILEEN JARDUERA AKADEMIKOEN BANAKETA

Lanaldi osoko irakasle-ikertzaileek urteko lanaldiaren zati bat (**200 eta 300 ordu** artean) erabiliko dute **oinarrizko gestio zereginetan**, ezinbestekoak unibertsitateko sail, ikastegi, zerbitzu eta egituren funtzionamendu egokirako. Besteak beste:

- Sailen, institutuen, ikastegien... bilerak.
- Siletako, ikastegietako... batzordeen koordinatzailea eta kide izatea.
- Eskabideak betetzea eta txostenak egitea.
- Irakasgai, modulu, maila edo titulazioen oinarritzko koordinazioari lotutako zereginak
- Irakaskuntza gidak eguneratzea/egokitzea.

Gainera, ezinbestekotzat jotzen da lanaldi osoko irakasle-ikertzaileek lanaldiaren beste zati bat (**urtean 300 eta 400 ordu** artean) erabiltzea **prestakuntza eta eguneratze lanetan**, beharrezkoak irakasleen ezagutzak eta trebetasunak mantentzeko. Besteak beste:

- Ikastaroetara, hitzaldietara eta biltzarretara joatea.
- Informazioa bilatzea, liburuak eta artikuluak irakurtzea.
- Irakaskuntza materialak egokitzea.
- Komunikazioak aurkeztea biltzarretan edo jardunaldietan.
- Ikertaldean jardueretan parte hartzea.

Bestetik, oro har, irakasle-ikertzaile hauek **urtean 250 ordu eskaini behar dizkiete oinarritzko irakaskuntza eta ikerketa jardueri, tutoretzak barne**, eta **urtean beste 550 ordu, bestelako ikerketa eta transferentzia lanei**.

Ez badira egiten gestio, prestakuntza edo irakaskuntza eta ikerketako oinarritzko jarduera horiek, dagokion organoak (sailak, institutuak, ikastegiak) txosten bat egin ahal izango du, eta organo eskudunak, hala badagokio, informazio espediente ireki. Hauek izan daitezke, orientazio

gisa eta besteak beste, txosten negatiboa egiteko arrazoiak:

- Sailaren, arloaren edo irakasgaiaren jardueren % 85ean baino gutxiagotan parte hartzea.
- Uko egitea sailaren zuzendaritzak agindutako zereginiei: irakasgaiaren koordinazioa, arloko batzordea, plazen epaimahaia, poltsen epaimahaia, erreklamazio batzordea...

Hori guztia kontuan izanik, oro har lanaldi osoko irakasle-ikertzaileek urtean **1.300 ordu inguru ematen dituzte zuzeneko irakaskuntzaz bestelako zereginetan**. Beraz, oro har eta USLOekin bat etorritik, **240 ordu** gordetzen dira irakaskuntzarako, ikasturte bakoitzean eman eta aitortu beharrekoak (ikasgelako, laborategiko edo mintegiko eskolak, edo tutoretza orduak nahitaezko kanpoko praktketan, Practicumean edo irakaskuntza dualeko tutoretzan), eta kopuru hori **ikasturtean 120 ordura murriz** daiteke, baldin eta UPV/EHUren estrategiarekin bat datozen lan gehigarriak egiten badira gestioan, irakaskuntzan, ikerketan edo transferentzian.

USLOk irakats jarduna ordutan adierazten badu ere, **irakaskuntza kreditua hartuko da unitatetzat** dokumentu honen zati handi batean. Oro har, lanaldi osoko irakasle-ikertzaileek **24 kredituko irakats jarduna** izango dute ikasturtean. Beraz, baliokidetasuna eginez, irakasleak **10 eskola ordu egin beharko ditu ECTS kreditu bakoitzeko**. Asteko orduen eta kredituen arteko korrespondentzia kalkulatzeko, kontuan hartuko dira 15na eskola asteko bi lauhileko, irailaren 1etik maiatzaren 31ra.

4. IRAKATS AHALMENAK

Irakats ahalmenek adierazten dituzte irakasleen irakats betebeharrak kreditutan, eta ikasturte bakoitzeko ordu kopuruarekin erlazionatzen dira, baliokidetasun honen arabera:

1 irakaskuntza kreditu --> 10 orduko eskola jarduera ikasle talde batekin --> Guztira, ikasleen 25 orduko lana

Hiru motatako irakats ahalmenak daude:

- IAGd = irakats ahalmen gordina USLOk ezarri moduan, oro har 24 kreditu lanaldi osoko irakasleentzat.
- IAGb = irakats ahalmen garbia, zuzeneko murrizketak kenduta sortzen den emaitza.
- UIA = urteko irakats ahalmena Hori da sortzen den emaitza behin aplikatuta gerora aitorturiko irakats lana eta, hala badagokio, *Jardun* gehigarrien aitortpena. Edozein kasutan, haren balio minimoa IAGb/2 izango da.

IAGd – irakats ahalmen gordina

USLOren 75.2 artikulua eta aurreko paragrafoan aipatutakoaren arabera, oro har lanaldi osoko irakasleen hasierako irakats ahalmena 240 ordu/ikasturte da (edo 24 kreditu).

Lanaldi partzialeko irakasleen kasuan, ahalmena izango da kontratuaren araberakoa:

$$IAGd = (\text{asteko ordu kopurua, kontratuaren arabera}) * (30 \text{ eskola aste}) / (10 \text{ ordu/kreditu}).$$

Salbuespenak:

- Ahalmen hau 18 kreditukoa da irakasle laguntzaile doktoreen eta ospitaletako irakasleen kasuan.
- Ikertzaile doktore iraunkorren kasuan, ahalmen hau 12 kreditukoa da.

IAGb = irakats ahalmen garbia

Kasu batzuetan eta zuzeneko murrizketen (ZM) bidez, irakats ahalmen gordina gutxitu egiten da, eta horren emaitza irakats ahalmen garbia da (IAGb).

$$IAGb = IAGd - ZM$$

Zuzeneko murrizketak kasu hauetan aplikatzen dira (USLOren 75.2 artikulua):

- Eskola aldiaren barruan gertatutako ezintasun iragankorreko bajak, bost egunetik gorakoak badira, eta murrizketa dakarten lizentziak eta baimenak.
- Kargu akademikoa betetzeko edo lan sindikala egiteko murrizketak.
- Ardurak hartzea unibertsitatearentzat interesekoak diren proiektuetan (ERC...), Estatutuetan eta dagokion ebazpenean zehazten den moduan.
- Mendeko pertsonen zaintzaren ondorioz emakumeen eta gizonen artean dauden desparekotasunak orekatzeko murrizketak, dagokion ebazpenaren bidez zehaztuak.

Kalkuluak egitean, eskola alditzat hartu da irailaren 1etik maiatzaren 31rako epea.

UIA = urteko irakats ahalmena

Urteko irakats ahalmenak (UIA) adierazten du zer irakats betebeharrak dituen (kreditutan) irakasle-ikertzaile batek ikasturte osoan edo, aldi baterako irakasleen kasuan, dagokion kontratazioaldian.

USLOren 75.2 artikulua araberak, lanaldi osoko irakasleek ikasturte bakoitzean eskola ordu kopuru jakin bat eman behar dute, ikasturte horretan aitortuko zaiena. Ikasgelan dena ematen den kreditu kopuru hori gehieneko IAGb baten eta gutxienezko IAGb/2 baten artean egon behar da.

Sail baten UIA adierazten du sailak zer baliabide dituen, kreditutan adierazita, urteko irakats lanari (UIL) aurre egiteko.

Beraz, UIA kalkulatzeko, zenbatu egin behar dira JARDUN gehigarriengatik murrizketak (JM) eta gerora aitorturiko irakats lanari dagozkionak (GAI). **Lanaldi osoko irakasle-ikertzaileen** kasuan (baldin eta sailaren edo ikastegiaren txosten negatiborik ez badute eta sailak bere gain har badezake irakasle horien irakats lana), kontuan hartuko dira UPV/EHUren estratergiarekin bat datozen lan gehigarriak (JM), honako arlo hauetan:

- a) Ikerketa eta transferentzia (IT)**, I. eranskinean jasotako irizpideen arabera. Haren balio maximo *efektiboa* sei kreditu izango da.
- b) Gestio eta irakaskuntza lan gehigarriak (GI)**, I. eranskinean jasotako irizpideen arabera. Haren balio maximo *efektiboa* sei kreditu izango da.

UIA murrizten duten JARDUN murrizketa guztien batura IAGb/3 izango da gehienez.

Hasierako JM = IT_M + GI_M

Dena dela, JM_efektiboa $\leq$ IAGb/3

Beraz, JM = min [IAGb/3; (IT_M + GI_M)]

Helburua ez da zehatz-mehatz neurtzea UPV/EHUko lanaldi osoko irakasle-ikertzaileen jardura guzti-guztiak, ezpada **ikasturteko irakats betebeharren murrizketen bidez aitortzea UPV/EHUren Plan Estrategikoaren helburuak betetzeko eta unibertsitatearen kanpoko ebaluazio adierazleak hobetzeko eginiko jarduerak**. I eranskinean jaso dira murrizketa hauek egiteko aukera ematen duten jardura zehatzak.


Gerora aitorturiko irakats lanak (GAI) adierazten du indarreko ikasturtean aitortu beharreko kredituak aurreko ikasturteetan eginiko zuzendaritza edo tutoretza lanengatik UIAn duen eragina IAGb/3 baliora mugatuko da.

USLOren arabera:

UIA = max [IAGb/2; (IAGb - JM - GAI)]

Formula hori honela ere adieraz daiteke, hiru erregelatan oinarrituta:

1. Ikasturte bakoitzean irakasle-ikertzaile guztiek gutxienez beren IAGb-ren erdiaren baliokidea den eskola ordu kopuru bat eman behar dute (120 ordu, oro har).
2. Irakasle-ikertzaile guztiei aitortuko zaizkie, "gerora aitorturiko irakats lan"aren (GAI) kontzeptuaren barruan, tesiak, GRALak eta MALak zuzentzeagatik aurreko bi ikasturteetan lortutako kredituak. Irakats betebeharrak murrizteari dagokionez, gehienez IAGb/3 aitortuko da efektiboki, eta 1. erregelako baldintza beteta beti.
3. JARDUN murrizketak lortzen dituzten irakasle-ikertzaileei espedientean aitortuko zaizkie. Irakats obligazioak murrizteari dagokionez, gehienez IAGb/3 aitortuko da efektiboki, eta 1. erregelako baldintza beteta beti.



V. eranskinean adibide batzuk ikus daitezke, aipatutako kontzeptuak argitze aldera.

5. IRAKATS LANA

Irakats lana (IL) da irakasle-ikertzaileek ikasturtean egin behar dituzten *ohiko* irakaskuntza jardueren multzoa. Ikasturtea hasi aurreko plangintza fasean, enkargu bati dagokio, hau da, irakasle batek bere gain hartu beharreko irakaskuntzari. Aldiz, ikasturtea amaitu bada, emandako irakaskuntza da (egiaztagarria). Nolanahi ere, bi osagai ditu (IL = UIL + GAI):

- **UIL (urteko irakats lana):** eskolako lana (ikasgelako, laborategiko edo mintegiko irakaskuntza, edo nahitaezko kanpoko praktiketako, Practicumeko edo irakaskuntza dualeko tutoretza), ikasturtean egin eta aitortu beharrekoa UPV/EHUko gradu edo master ofizialetan edo parekagarriak diren beste ikasketa ofizialetan. II. eranskinak azaltzen du nola zenbatu urteko irakaskuntza jarduerak.
- **GAI (gerora aitorturiko irakats lana):** irakaskuntza geroratua, eman denetik bi ikasturtera kontabilizatzen dena, doktorego tesiak eta master edo gradu amaierako lanak zuzentzeari, edo UPV/EHUko ikasketa ofizialetako borondatezko kanpoko praktiken tutoretzari dagokiona. III. eranskinean azaltzen da nola zenbatzen den gerora aitorturiko irakats lan mota bakoitza. UIA murrizten duten JARDUN murrizketa guztien batura IAGb/3 izango da gehienez ere. Hau da:

Hasierako_GAI = tesi GAI + GRAL GAI + MAL GAI +


praktikak_GAI, baina GAI_efektiboa $\leq$ IAGb/3

Beraz, GAI = $\min [IAGb/3; (tesi\ GAI + GRAL\ GAI + MAL\ GAI + praktikak_GAI)]$

Horrenbestez, irakasleen ikasturteko jardun, betetze edo okupazio indize bat defini daiteke, UIL/UIA ratio gisa. Hau da, ikasturtean irakasleak bere gain hartutako irakaskuntzaren eta ikasturte horri dagozkion irakats obligazioen edo ahalmenen arteko erlazioa.

Jardun indizea batekotik hurbil egongo da kasu gehienetan, haren azpitik normalean, bat-batean sortutako egoerei aurre egiteko, nahiz eta batekotik gorako balioak ere izan ditzakeen:

- - Irakasle-ikertzaileek hala erabakitzen badute beren borondatez, adibidez, irakaskuntzan lagundu nahi duten doktorego aurrekoek (21. art.) eta doktorego ondokoek (22. art.).
- - Bat-batean sortutako egoeretan, hurrengo ikasturteetan konpentsatu beharreko neurri puntual gisa.



6. IRAKATS LANAREN BANAKETA SAIL BAKOITZEAN

Honako hauek dira kontuan hartu beharreko datu nagusiak sail bakoitzean urteko irakats lana banatzeko orduan:

- Saileko kide bakoitzaren UIA (urteko irakats ahalmena)
- Saileko kideen multzo osoaren UIA
- Sail osoak bere gain hartu beharreko UIL (urteko irakats lana)

Banaketaren helburua da urteko irakats lana esleitzea saileko kide bakoitzari, halako moldez non:

- Saileko irakasle-ikertzaileen UILen batura bat datorren UILekin.
- Saileko kideen UIL/UIA ratioa homogeneoa den.
- Sailaren UIL balioa sailaren UIA baino handiagoa bada, gainkarga hori konpentsatuko da urte anitzeko plangintza baten bidez. Hori ezinezkoa bada, ahalegina egingo da irakaskuntzaren zati bat kideko sail baten esku uzten edo, hori ere ezinezkoa bada, irakats lana murrizten, Irakaskuntza Esleitzeko Arautegiak (EHAA, 2021/02/03) ezarritako lehentasunen arabera.

Sailaren jardun indizeak (Saila UIL/Saila UIA) okupazio maila adierazten du, eta kalkulatzen da irakats lanak dituzten saileko kide guztien irakats ahalmenak eta irakats lanak batuta.

7. GESTIORAKO SISTEMA INFORMATIKOA

UPV/EHUren sistema informatikoak irakasle-ikertzaile guztien egoera jasoko du: lehenik eta behin, irakasle-ikertzaileen irakats ahalmena (IAGd, IAGb, UIA); bigarrenik, sailean eginiko esleipenaren ondoren, irakats lana (IL). Irakasle-ikertzaile bakoitzak bere datuak kontsultatu ahal izango ditu: ahalmen gordina, zuzeneko murrizketak eta JARDUN murrizketak, gerora aitorturiko irakats lana, eta ikasturterako edo urterako irakats ahalmen edo obligazioak (UIA).

Gainera, aukera izango du noiznahi akatsak zuzentzea eskatzeko (dagokion zerbitzuak egingo dugu ofizioz), eta kontabilizatutako datuei buruzko alegazioak egiteko, horretarako ezarritako epean. Alegazioen kasuan, Jardun Batzordearen ardura izango da alegazio fasean sor litezkeen gorabeherak konpontzea (Irakasle-ikertzaileen errektoreordea izango da batzordeburua, eta kideak honako hauek, gutxienez: Irakasle-ikertzaileen Errektoreordetzak izendatutako bi pertsona, Ikerketa Errektoreordetzak izendatutako pertsona bat, Transferentzia Errektoreordetzak izendatutako beste bat, Euskara Errektoreordetzak izendatutako beste bat eta Gobernu Kontseiluak hautatutako irakasle-ikertzaileen bi ordezkari).

Sistema informatikoak aukera emango die ikastegiei kreditu poltsarako erabiliko dituzten itemak zehazteko. Gainera, ikastegiak arduratuko dira ikasturte bakoitzean irakasle-ikertzaileek item horiengatik lortutako kredituak grabatzeaz, betiere ikasturte horretan ikastegi osoari esleitutako kreditu langa errespetatuz.

Azkenik, sistema informatikoak aukera emango dio sailari ikusteko, kide guztien irakats ahalmenez eta irakats lanez gain, irakats obligaziorik gabeko irakasleen egoera eta bitarteko irakasleekin beteta ez dauden plaza hutsak.

I. ERANSKINA: JARDUN GEHIGARRI GISA KONTUAN HARTZEN DIREN JARDUERAK

Eranskin honetan aipatzen dira JARDUN gehigarri gisa kredituak lortzeko aukera ematen duten jarduerak. Honako hauek dira **aplikazio orokorreko irizpideak**:

- Irakasle-ikertzaileei ez zaie inolako JARDUN murrizketarik (JM) aplikatuko baldin eta aurreko ikasturtean gestio, prestakuntza edo irakaskuntza eta ikerketari loturiko oinarritzko jardueraren bat ez betetzeari buruzko txostena jaso badute.
- Ikasturte batean aitortutako jardueren kredituak ezin izango dira beste ikasturte batera pasatu.
- Berariaz kontrakorik adierazi ezean, kredituak bi ikasturte geroago aitortuko dira, jarduera egin egin dela egiaztatzeko eta, batez ere, sailek denbora izan dezaten irakaskuntza denbora nahikoarekin planifikatzeko¹.
- Ikerketa edo hezkuntza proiektuei edo lan zientifikoak argitaratzeari lotutako kredituei dagokienez, urte naturalak hartuko dira kontuan².
- Merezimendu bakoitza kontzeptu bakar batean bakarrik ebaluatuko da.
- JARDUNen aipatzen diren graduako eta graduondoko irakats jarduera guztiak eta haien gestioarekin loturikoak UPV/EHUren programa ofizialen barruan egindakoak izan beharko dira.

Beheko tauletan ikus daitezke **kredituak lortzeko aukera ematen duten jarduerak**. Gainera, jarduera ebaluatzeko ardura duen zerbitzua zehazten da.

¹ Adibidez, 2024/2025 ikasturteko irakaskuntza planifikatzeko, 2024ko otsailean/martxoan aitortuko dira jarduerengatiko kredituak. Horretarako, oinarri hartuko dira 2022/2023 ikasturtean eginiko jarduerak eta une horretako (2024ko otsaila) irakasle-ikertzaileen sailkapena.

² Adibidez, 2024/2025 ikasturteko irakaskuntza planifikatzeko, 2024ko otsailean aitortuko dira jarduera hauengatiko kredituak, kontuan izanik 2022. urte osoan eginikoak.

1. taula: Irakaskuntza kreditu baliokideak ematea ikerketan eta transferentzian eginiko lan gehigarriengatik

BALDINTZA: Kredituak emateko ikerketan eta transferentzian eginiko lan gehigarriengatik, ezinbestekoa da:

- UPV/EHU filiazioa modu egokian adieraztea.
- Adierazitako itemetan, irakasle-ikertzaileek erakundearen izenean parte hartu behar dute, UPV/EHUK zuzenean jaso behar ditu adierazitako gutxieneko funtsak eta UPV/EHU izan behar da proiektua edo kontratua gauzatzen duena.
- Ikerketa proiektuen kasuan eta Eusko Jaurlaritzaren eta UPV/EHUn ikertalde finkatuen kasuan, gutxienez hiru hilabeteko iraupena izan beharko dute urte naturalean.

MUGAK: Gehienez sei kreditu eman daitezke ikerketan eta transferentzian eginiko lan gehigarriengatik, eta IAGb-ren (Irakaskuntza Ahalmen Garbia) * 1/3 izango dira gehienez ikerketa/transferentzia eta gestioa/irakaskuntza jarduera guztiengatik emango diren kredituak.

	Jarduera	Kredituak	Ebaluatzailea
IT 1	Ikerketa edo transferentzia seiurtekoak	• 2 kreditu, 2 seiurteko izanez gero, azkena, bizia (irakasle atxikien kasuan, nahikoa izango da seiurteko bat; iraunkorren kasuan, iraunkor legez 6 urtetik beherako antzintasuna) • 4 kreditu, 3 seiurteko izanez gero (azkena, bizia) • 6 kreditu, 4 seiurteko izanez gero (azkena, bizia) • 6 kreditu, 5 seiurteko edo gehiago izanez gero (biziak ala ez) Urtebeteko gabealdia mantenduko da azken seiurteko bizian.	Irakasle-ikertzaileen EO

IT2	Zuzeneko murrizketa gisa kontuan hartu gabeko nazioarteko ikerketa proiektuak	• UPV/EHU partzuergoaren buru duten lankidetzak proiektuak eta ERC proiektuak (proiektua koordinatuko duen pertsonari dagozkion kredituak gonbidapen gutuna lortzen den egunetik hasita zenbatuko dira, betiere proiektua emanda badago)INa (koordinatzailea): 3 kreditu - Kideak: 1 kreditu ikertzaile bakoitzeko (alde batera utzirik INa, gehienez 8 kreditu). • UPV/EHU buru ez duten nazioarteko beste edozein proiektu, COST ekintzak UPV/EHU koordinatzaile orokorra (grant holder) denean eta Akitania-Euskadi-Nafarroa deialdiak:50.000 €-tik gorako proiektuak: 2 kreditu INarentzat (banatu beharrekoak, bat baino gehiago izanez gero) eta 1 kreditu ikertzaile bakoitzeko (alde batera utzirik INa eta, gehienez, 8 kreditu) - 50.000 €-tik beherako proiektuak: 1 kreditu, INarentzat (banatu beharrekoa bat baino gehiago izanez gero).	Ikerketa EO
IT3	Lidergoa Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko eta Berrikuntzako Estatuko Planeko proiektuetan	• 1 kreditu proiektu bakoitzeko INarentzat (banatu beharrekoa, bat baino gehiago izanez gero)	Ikerketa EO
IT4	Aparteko artikulua JCR kategorian (lehenengo zentila).	• 6 kreditu, UPV/EHUko egileen artean banatzekoak (gehienez 3 kreditu egile bakoitzeko, gutxienez 0,5). • 8 kreditu Nature edo Science aldizkarietako argitalpen bakoitzeko (aldizkari nagusiak bakarrik), UPV/EHUko egileen artean banatzekoak (gehienez 4 kreditu egile bakoitzeko, gutxienez 0,5)	Ikerketa EO

IT5	Zerrendetan agertzea (<i>Highly Cited Researchers</i>, Stanford zerrenda) edo aparteko sariak (Ezagutzaren Mugak BBVA Saria, Ikerketako, Literaturako edo Arte Plastikoetako sari nazionalak, Euskadiko Ikerketa Saria, Gure Arte Saria, Eusko Ikaskuntza/Laboral Kutxaren Humanitateak Sariak).	• 4 kreditu, HCR zerrendan agertzeagatik. • 4 kreditu, aparteko sari bakoitzeko. • 2 kreditu, Stanford zerrendan agertzeagatik.	Ikerketa EO
IT6	Eusko Jaurlaritzaren (GIC) edo UPV/EHUren (GIU) ikertalde finkatuetan parte hartzea	• GIC: 3 kreditu, taldekideen artean banatzekoak; 3,5 kreditu, diziplinartekoa izanez gero (gutxienez 2 jakintza arlo). • GIU: 2 kreditu, taldekideen artean banatzekoak; 2,5 kreditu, diziplinartekoa izanez gero (gutxienez jakintza arlo). Kasu bietan, gehienez, 2 kreditu/pertsona eta, gutxienez, 0,5 kreditu/pertsona.0} Defektuz, 2 kreditu INarentzat eta gainerakoa esleitu gabe, INak eskatu ezean.	Ikerketa EO
IT7	IRI koordinatzailea Zientzia Astean, Ikertzaileen Europako Gauean, EHUGune egitasmoan edo UPV/EHUK antolatutako antzeko mailako dibulgazio jardueretan. Baldin eta lan ordaindua ez bada.	• 0,2 kreditu ekitaldi bakoitza koordinatzeagatik (banatu beharrekoak, bi koordinatzaile egonez gero) • Gehienez 1 kreditu	Transferentzia eta Nazioartekotze EO

IT8	Hedabideetako ohiko kolaborazio lana egiten duten IRIak, zehazki, zientzia edo kultura dibulgazioko atal eta programetan parte hartzen dutenak. Erakusketetako komisarioak edo artista diren IRIak, Estatuan eta nazioartean ospea duten museo edo erakundeetan. Baldin eta lan ordaindua ez bada.	• 0,2 kreditu lankidetzak bakoitzeko (banatu beharrekoak lankidetzak ekitaldietan parte hartzen duten pertsonen artean) • Gehienez 1 kreditu	Transferentzia eta Nazioartekotze EO
IT9	Lizentziak ustiapenean Ustiapen aktiboen lizentziagatik diru sarrerak izanez gero (diru sarrerak izan dituzten lizentziak baino ez dira kontuan izango)	Kredituak parte hartzen duten IRIen artean banatuko dira, aktiboan duten titulartasunaren ehunekoaren arabera. • 0,5 kreditu urtean 10.000€-ra arteko diru sarrerak izanez gero • 0,75 kreditu diru sarrera ≥ 10.000 €-eta < 20.000 € bada • 1 kreditu diru sarrera ≥ 20.000 €-eta < 30.000 € bada • 1,25 kreditu diru sarrera ≥ 30.000 €-eta < 40.000 € bada • 1,5 kreditu urteko diru sarrera ≥ 40.000 € bada. Gehienez, 2 kreditu pertsonako	Transferentzia eta Nazioartekotze EO

IT10	Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea gelak.	1 kreditu Enpresa gela, Gela teknologikoa edo Gizarte gela zuzentzeagatik ((baldin eta lan ordaindua ez bada)	Vicerrectorado de Transferencia e EO
IT11	Spin-off edo Start-up enpresak sortzea Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzaren babesarekin. (Spin-off enpresaren lehenengo 3 urteetan, martxan jartzen denetik kontaktzen hasita)	2 kreditu, enpresaren sortzaileen artean banatzekoak (enpresa sortu eta hurrengo hiru urteetan)	Transferentzia eta Nazioartekotze EO
IT12	Lidergoa erakunde publikoekin eta erakunde pribatuekin eginiko transferentzia kontratu eta hitzarmenetan (ITRB edo Euskoiker), unibertsitatera urtean gutxienez 50.000 €-ko funtsak (BEZ gabe) itzultzen dituztenean.	0,5 kreditu INarentzat, kopurua ≥ 50.000 € eta < 75.000 € bada 0,75 kreditu INarentzat, kopurua ≥ 75.000 € eta < 100.000 € bada 1 kreditu INarentzat, kopurua ≥ 100.000 € bada Gehienez 1 kreditu urtean	Transferentzia eta Nazioartekotze EO

2. Taula: Irakaskuntza kreditu baliokideak ematea gestioarekin eta irakaskuntzarekin loturiko zereginetan eginiko lan gehigarriengatik

MUGAK: Gehienez sei kreditu eman daitezke gestioan eta irakaskuntzan eginiko lan gehigarriengatik, eta IAGb-ren (Irakaskuntza Ahalmen Garbia)* 1/3 izango dira gehienez ikerketa/transferentzia eta gestioa/irakaskuntza jarduera guztiengatik emandako kredituak.

	Jarduera	Kredituak	Ebaluatzailea
GI1	Kreditu poltsa ikastegi bakoitzeko	Ikastegiak definitu eta gauzatu beharrekoa, <i>GI1-Kreditu poltsa ikastegi bakoitzeko</i> atalaren arabera	UPV/EHUko ikastegiak
GI2	Saileko gestio lanak	- Sailak kredituak emango ditu jarduera hauengatik: 2 kreditu, Saileko Atal Ofizial bakoitza koordinatzeagatik eta arlo ofizialetako batzordeengatik 2 kreditu, gutxienez 10 IRI dituen jakintza arlo bakoitzagatik (aitortzeko arloaren koordinazio lana, eta poltsen batzordeetan edo erreklamazioen batzordean parte hartzea).	Saileko kontseilua
GI3	Lidergoa unibertsitatean inpaktua duten genero berdintasuneko ekintzetan	Gehienez 1 kreditu	Idazkaritza Nagusia (Berdintasunerako Zuzendaritza)
GI4	Bikaintasun proiektuen koordinazioa (Campus Bizia Lab eta Gaztenpatia), ONDU eta Erasmus +	2 kreditu, koordinatzailearentzat	Ikasleen eta Konpromiso Sozialeko EO Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO Transferentzia eta Nazioartekotze EO

GI5	Hizkuntza politika integrala	• 2 kreditu plazaren profila aldatu eta ingelesa gehitzearren ikasturtean gutxien dela 6 kreditu ingelesez emateko lanpostuen zerrendan plazaren ezaugarria aldatu eta hurrengo lau ikasturteetan. (baldintza bete eta bi ikasturte beranduago ezarriko da) • 2 kreditu beste irakasgai berri bat euskaraz ematen duen IRlarentzat; 1 kreditu bigarren ikasturtean • 2 kreditu saileko euskara arduradunarentzat. Hizkuntz Ofizialen eta Ez Ofizialen Erabilera Plana) • 0,25 "euskara lagun" eta English Friendly Course irakasgaiak eskaintzeagatik. • 2 kreditu EHULKU sarean parte hartzen duten IRlarentzat (IRlarentzako hizkuntza arloko laguntza sare)	Irakasle-ikertzaileen EO Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO
GI6	Argitalpen akademikoak euskaraz	• Gehienez, 2 kreditu - o 2 kreditu liburu bat euskaraz argitaratzeagatik - o 0,5 kreditu * euskaraz argitaratutako kapitulu edo argitalpen-koordinazioa / egile kop. edo argitalpen-koordinatzaile kop.. - o 2 kreditu euskarazko aldizkari akademikoak zuzentzeagatik - o 0,5 kreditu * aldizkari akademikoetako artikulu kop./egile kop. - o ISBNa edo ISSN a daukaten argitalpenak (0,5 liburuko, 0,25 artikuluko, 0,1 ekarpen laburrak). Hainbanatu egingo da egile kopuruaren arabera. • Irakats materialak argitaratzea eta hezkuntza berrikuntzako proiektuen emaitzak (0,5 kreditu, egile kopuruaren arabera hainbanatua). • 2 kreditu euskarazko aldizkari akademikoak edo liburu bildumak edo serieak zuzentzeagatik • Argitalpen akademikoaren hizkuntza gainbegiratzea edo gainbegiratze teknika (0,5 kreditu gainbegiratutako liburuko edo aldizkari akademikoko zenbaki oso	Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO

	bakoitzeko; 0,15 kreditu kapituluko edo aldizkari akademikoko artikuluko).		
GI7	Diseinatzaile rola ikasleentzako X kredituko online ikastaro estrategikoan (Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetzaren irizpidearen arabera)	• Xen % 50 ikastaroaren lehen urtean • Xen % 30 ikastaroaren bigarren urtean • Xen % 20 hurrengo urteetan	Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko EO (eCampuseko Zuzendaritza)
GI8	Batzordekide izatea (hainbanatuko egingo da batzordekide izandako ikasturtearen %aren arabera)	• 3 kreditu/ikasturte Plaza Iraunkorren Erreklamazio Batzordea, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordea, eta Unibertsitateko Irakasleen Batzordea • 2 kreditu/ikasturte: Gobernu Kontseiluko kide hautatuek, Etika, Gradu eta Euskara batzordeetakoek eta Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordekoek. • 1 kreditu/ikasturte: Bizikidetza Batzordea eta Berdintasun Batzordea • 1 kreditu/ikasturte: Laneko Osasun eta Segurtasun Batzordea	Idazkaritza Nagusia
GI9	Ebaluazio positiboa Docentiaz programan azken bost deialdietan	• 2 kreditu, ebaluazioa «bikain» bada • 1 kreditu, ebaluazioa «oso ona» edo «gain-gainekoa» bada	Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO

GI1 - Kreditu poltsa ikastegi bakoitzeko

Graduak, master ofizialak eta doktoregoak emateko ardura duten ikastegiei kreditu poltsa bat izango dute, eta poltsa horren bidez kreditu baliokideak aitortuko dizkiete gestioan eta irakaskuntzan lan gehigarri jakin batzuetan parte hartuko duten irakasle-ikertzaileei (ikastegian duten karguari inplizituki ez dagozkion jarduerak, estrategikotzat jotzen dituztenak edo ezinbestekoak direnak ikastegien funtzionamendu egokirako). Ondoren aipatzen dira ikastegien kasuan kredituak ematen dituzten jarduera batzuk, bai eta ikastegi bakoitzaren kreditu poltsa kalkulatzeko irizpidea ere.

- Ikastegiak berak zehaztuko du zein jardueren bidez emango diren kredituak. Zerrenda honetan daude adibide batzuk:
- Modulu/ibilbide/ikasturte/gradu/prestakuntza dualeko koordinazioa
- Berme eta kalitate batzordeetan edo berdintasun batzordean parte hartzea
- Practicumaren gestioa
- Unibertsitate masterren gestioa
- Ikastegiaren nazioartekotzearekin lerrokatutako ekintzak
- Ikastegian euskara sustatzearekin lerrokatutako ekintzak
- Ateak Zabaltzeko Egunen koordinazioa eta parte hartzea
- Ikasketa plan berriak diseinatzea edo eguneratzea
- GRAL eta MAL epaimahaietan parte hartzea
- Etengabeko prestakuntzako ikasketen batzorde akademikoko burua edo kidea izatea (ordainsaririk jasotzen ez bada)
- ...

2024/25 ikasturtean, 2.500 kreditu izango ditu guztira ikastegien kreditu poltsak. Honela banatuko dira ikastegien artean:

- Doktorego Eskolari 300 kreditu dagozkio, doktorego programen eta master batzuen kudeaketan eskusiboki aritzen den ikastegi berezi izateagatik (JAP zaharraren EI8 eta EI9 itemen arabera). Kreditu horiek banatuko dira UPV/EHUko doktorego programa guztien koordinatzaileen eta batzordeetako kideen artean, bai eta ikastegi horretan kokatutako masterren arduradunen eta batzordeen artean ere.
- Gainerako ikastegiei:
 - o kredituen % 10 berdin banatzen dira ikastegi guztien artean, tamainaren mende ez dagoen oinarritzko funtzionamenduari erantzuteko.
 - o % 5, Bikain ziurtagiria duten ikastegien artean. Honela: Ikastegi kredituak = Kredituak guztira * ikastegi puntuak / ikastegi puntuen batura. Non: ikastegi puntuak = 5 (oinarrizko maila), 7 (maila ertaina) edo 10 (goi maila)

- o % 5, nazioartekotzea saritzeko, banatu beharrekoak nazioarteko mugikortasun programetan jasotako ikasle kopuruaren arabera (Erasmus+, Latinoamerika, beste norako batzuk) [etorritakoak]; nazioarteko mugikortasun programetan irtendako UPV/EHUko ikasleak (Erasmus+, Latinoamerika, beste norako batzuk) [irtendakoak]; nazioarteko mugikortasun programetan jasotako ikasleak (Erasmus+, Latinoamerika, beste norako batzuk), irakasle tutore batek tutorizatuak [etorritakoak_tutorizatuak]; nazioarteko mugikortasun programetan irtendako ikasleak (Erasmus+, Latinoamerika, beste norako batzuk) irakasle tutore batek tutorizatuak [irtendakoak_tutorizatuak]; eta Unibasqen nazioarteko kalitate zigilua duten ibilbideen eta tituluen (graduak nahiz graduondokoak) kopurua (edo, 3 ikasturtez, hizkuntza ez-ofizialetan irakasteko deialdian baimendutako eta emandako irakasgaien Nazioarteko Ibilbideak):
- o Ikastegi kreditua = kredituak guztira * $[0,3 \cdot (\text{etorritakoak} / \text{etorritakoak_guztira}) + 0,3 \cdot (\text{irtendakoak} / \text{irtendakoak_guztira}) + 0,1 \cdot (\text{etorritakoak_tutorizatuak} / \text{etorritakoak_tutorizatuak_guztira}) + 0,1 \cdot (\text{irtendakoak_tutorizatuak} / \text{irtendakoak_tutorizatuak_guztira}) + 0,2 \cdot (\text{titulazioak_ibilbideak} / \text{titulazioak_ibilbideak_Unibasq_eta_Eleaniztasuna_guztira})]$
- o % 5, prestakuntza duala saritzeko, honela banatzekoak: ikastegi kredituak = kredituak guztira * ikastegi puntuak/batukaria_ikastegi puntuak; Non: ikastegi puntuak = gehi 5 ibilbide dual bakoitzeko eta gehi 10 gradu dual bakoitzeko (kanpoko praktikak)
- o Gainerako % 75, ikastegiaren tamainaren mende dauden zereginetarako; beraz, ikasle eta titulu (graduak eta masterrak) kopuruaren arabera banatzen dira:
 - $K_1 = \text{ikastegiko ikasleak} / \text{UPV/EHUko ikasleak guztira}$
 - $K_2 = \text{ikastegiko tituluak} / \text{UPV/EHU tituluak guztira}$ (haztatuz: graduak 4, masterrak 1, gradu bikoitzak 1,5, master profesionalizatzaileak 1,5)
 - $P = \text{ikastegiari emandako kreditu kop.}$

$$P = \frac{N^{\circ} \text{ créditos a repartir} * 70}{100} * K_1 + \frac{N^{\circ} \text{ créditos a repartir} * 30}{100} * K_2$$

II. ERANSKINA: URTEKO IRAKATS LAN GISA KONTUAN HARTZEN DIREN JARDUERAK

Taulak adierazten du zenbat kreditu lor daitezkeen ikasturte berean eginiko irakaskuntza jarduerengatik.

	Jarduera	Kredituak irakaskuntza jarduerengatik	Kredituak aitortzen dituen errektoreordetza
UI1	Irakaslan UPV/EHUn emandako gradu eta unibertsitate master ofizialetan, edo parekagarriak diren UPV/EHUn beste ikasketa ofizial batzuetan.	1 kreditu, 10 eskola orduko % 20ko gehigarria, irakasle-ikertzaileari gradu edo master profesionalizatzaileko irakats lana esleitzen zaionean berea ez den beste ikastegi batean (beste campus batean eta bizilekutik 40 km baino gehiagora kokatua), aldi baterako premiengatik.	IRI EO

UI2

Irakasgai dualen (GRAL izan ezik), Practicumaren eta nahitaezko kanpoko praktiken tutoretza

- Irakasgai hauen tutoretzak kredituak emango ditu, formula honen arabera:

$$\text{Kreditu kopurua} = F * K * A$$

F: 0,02, practicumaren eta nahitaezko kanpoko praktiken kasuan; 0,04, irakasgai dualen kasuan

K: irakasgaiaren kredituak ikasketa planean

A: tutoretzapeko ikasle kopurua

Mugak:

- Gehienez 6 kreditu aitor daitezke irakasgai hauengatik (IRI eta ikasturte bakoitzeko). 12 kreditu, Erizaintzako Graduan.
- Kredituak aitortzeko, ikastegiek erabiliko dute PRACTICUM – Nahitaezko Praktiken Gestioa izeneko informatika tresna, GAUR plataformaren barruan.

Ikastegien
Zuzendaritzak
eta IRI EO

III. ERANSKINA: GERORA AITORTURIKO IRAKATS LANA

Taulak adierazten du zenbat kreditu lor daitezkeen gerora aitorturiko irakats lanagatik. Taulan adierazitakoaz gain, kontuan hartu behar da:

- Gerora aitorturiko irakats lanak urteko irakats betebeharren murrizketan duen eragina IAGb-ren (irakats ahalmen garbia)*1/3 izango da.
- Tesiak, MALak, GRALak, tutoretzak izango dira UPV/EHUn matrikulatutako ikasleekin egindakoak eta UPV/EHUko doktorego, master eta gradu ofizialen baitan UPV/EHUn eginiko jarduerak (defentsak).

	Jarduera	Kredituak irakaskuntza jarduerengatik	Kredituak aitortzen dituen errektoreordetza
GAI 1	Doktorego tesiak zuzentzea (honez gain, kontsulatu xedapen iragankorrak)	• Urte bateko irailaren 1etik hurrengo urteko abuztuaren 30era UPV/EHUn zuzendu eta defendatutako tesi bakoitzak 6 kreditu emango dizkio zuzendari taldeari (banaketa uniformeki egingo da). Kredituak uniformeki aitortuko dira defentsa egin ondorengo bigarren eta hirugarren ikasturteen artean. 0,5 kreditu gehigarri emango da laugarren ikasturtean (eta gehienez ere 1 kreditu gehigarri), ezaugarri hauetako bat betetzeagatik: nazioarteko tesiak, euskaraz eginikoak, industria alorrekoak, GJH tematikakoak (Graduondokoaren arloko Errektoreordetzak baloratuko du), osasun alorrekoak edo hezkuntza alorrekoak. Tesiaren zuzendaritza lanean parte hartu badu zuzendaria ez den tutore batek, harentzat izango da kredituetako bat. Gainerako kredituak uniformeki banatuko dira zuzendarien artean.	Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko EO

	Jarduera	Kredituak irakaskuntza jarduerengatik	Kredituak aitortzen dituen errektoreordetza
GAI2	UPV/EHUn emandako master ofizialetako Master Amaierako Lanen (MAL) zuzendari lana.	• 0,5 kreditu, MALak 8 kreditu edo gutxiago baditu • 0,75 kreditu, MALak 8 kreditu baino gehiago eta 12 kreditu baino gutxiago baditu • 1 kreditu, MALak 12 kreditu edo gehiago baditu Mugak: • MALa UPV/EHUn defendatu beharko da. • Kredituak aitortuko dira bi ikasturte geroago, lana kalifikatu bada. • Gehienez 6 kreditu aitortuko zaizkio IRI bakoitzari, ikasturte batean. • (0,25) kreditu gehigarria, i3 eremuan oinarritutako, kanpoko erakundeen erronkei lotutako edo diziplina anitzeko MALagatik (Graduaren arloko Errektoreordetzak baloratuko du).	Masterren arduradunak eta IRI EO

GAI3	UPV/EHUn defendatutako Gradu Amaierako Lanen (GRAL) eta Karrera Amaierako Proiektuen (KAP) zuzendari lana.	• 0,25 kreditu, GRALak/KAPak 8 kreditu edo gutxiago baditu • 0,37 kreditu, GRALak/KAPak 8 kreditu baino gehiago eta 12 kreditu baino gutxiago baditu • 0,5 kreditu, GRALak/KAPak 12 kreditu edo gehiago baditu Mugak: • Kredituak aitortuko dira bi ikasturte geroago, lana kalifikatu bada. • Gehienez 6 kreditu aitortuko zaizkio IRI bakoitzari, ikasturte batean. (0,25) kreditu gehigarria, i3 ereduan oinarritutako, kanpoko erakundeen erronkei lotutako edo diziplina anitzeko GRALagatik (Graduaren arloko Errektoreordetzak baloratuko du).	Ikastegiko Zuzendaritzak eta IRI EO
-------------	---	--	--

GAI 4	UPV/EHUko graduen eta unibertsitate masterren irakaskuntzari loturiko borondatezko kanpoko praktiken tutoretza, Garapenerako Lankidetzako jardueren barruan eginikoak barne.	- Formula hau erabiliko da borondatezko kanpoko praktikak zuzentzeagatik eman beharreko kredituak kalkulatzeko: $\text{Kreditu kopurua} = 0,05 \cdot N + 0,01 \cdot H / 25$ N: tutoretzapeko ikasle kopurua; H: tutorizatutako ordu kopurua. - Gehienez 3 kreditu emango zaizkio IRI bakoitzari, ikasturte batean, zeregin honengatik.	Campuseko EO. eta Ikastegiko Zuzendaritza (PRAKTIGES)
--------------	---	---	--

IV. ERANSKINA: NOIZ EGINDAKOAK DIREN 2026/2027 IKASTURTEAN AITORTUKO DIREN MEREZIMENDUAK

JARDUN planeko itema	Kredituak aitortzen dituen errektoreordetza	Merezimendua	Grabazio mota
IT1: seiurtekoak	IRI EO	2018/01/01etik 2024/12/31ra arte bizirik dagoela ulertzen da. Berriak 2025/09/10ean grabatu dira eta 2026/2027ko Jardunen ikusiko dira, baina horrek ez du ekarriko irakaskuntza berrantolatzea.	Automatikoko gauero /Automatikoki eskuz emanda agindua
IT2: Nazioarteko ikerketa proiektuak	Ikerketa EO	2024 urte naturalekoak (gutxien dela 3 hilabete)	Eskuz Ikerketa EO
IT3: Lidergoa estatuko planeko proiektuetan	Ikerketa EO	2024 urte naturalekoak (gutxien dela 3 hilabete)	Eskuz Ikerketa EO
IT4: Aparteko artikulua	Ikerketa EO	2024 urte naturalekoak	Eskuz Ikerketa EO
IT5: Izen handiko zerrendetan agertzea edo aparteko saria izatea	Transferentzia EO	2024 urte naturalekoak	Eskuz transferentzia EO
IT6: Ikertalde finkatukoa izatea	Ikerketa EO	2024 urte naturalekoak (gutxien dela 3 hilabete)	Eskuz Ikerketa EO
IT7: Dibulgazio jarduerak	Transferentzia EO	2024/2025 ikasturtekoak	Eskuz transferentzia EO
IT8: Hedabideak.	Transferentzia EO	2024/2025 ikasturtekoak	Eskuz transferentzia EO
IT9: Ustiapen lizentziak	Transferentzia EO	2024 urte naturalekoak	Eskuz transferentzia EO

IT10: Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea gelak.	Transferentzia EO	2024/2025 ikasturtekoak	Eskuz transferentzia EO
IT11: spin-off edo start-up	Transferentzia EO	2024 urte naturalekoak	Eskuz transferentzia EO
IT12: Kontratuak eta hitzarmenak	Transferentzia EO	2024 urte naturalekoak	Eskuz transferentzia EO
GI1 - Kreditu poltsa ikastegi bakoitzeko	Ikastegiak	Ikastegiak nahi duenean	Eskuz ikastegiak
GI2: Saileko gestio lanak	Sailak	Koordinatzaileak: 2024/2025 ikasturtea: Gainerakoa sialak nahi duenean	Ataleko koord.. Eskuz sailak. Gainerakoak: Eskuz IRI EO
GI3: Berdintasuneko ekintzak	Idazkaritza Nagusia (Berdintasunerako Zuzendaritza)	2024-2025 urte naturalekoak	Eskuz Idazkaritza Nag.
GI4: Bikaintasun proiektuak	Gradu eta Hezkuntza Berrikuntzako EO eta Transferentzia EO	2024 urte naturalekoak	Eskuz Gradu EO eta Graduondoko EO
GI5: Aldaketa lanpostuen zerrendako plazan, ingeles profila gehituta	IRI Errektoreordetza	Irakaskuntza ingelesez 2024/2025 ikasturtean, plazaren aldaketa 21/22 do 22/23 edo 24/25 ikasturtean egin ondoren	Erdi automatikoa IRI EO
GI6: Euskara	Euskara, Kultura eta Nazioartekotzea EO	2024 urte naturalekoak	Eskuz Euskara EO
GI7: Ikastaroak online	Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntza EO	2024/2025 ikasturtea	Eskuz Graduondoko EO
GI8: Batzordeak	Idazkaritza Nagusia	2025/2026 ikasturtea	Eskuz Idazkaritza Nag.
GI9: Ebaluazio positiboa Docentiaz programan azken bost deialdietan	Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO	2020/21 maila; 2021/22 maila; 2022/23 maila; 2023/24 maila; 2024/25 maila	Eskuz, Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzua

V. ERANSKINA: UIAren KALKULUAREN ADIBIDEAK

Lehenengo kasua: 24 UIA kreditu dituen irakasle titularra. 8 kreditu dagozkio ikerketan eta transferentzian; 4 kreditu, gestioan eta irakaskuntzan.

Gainera, 8 kreditu ditu gerora aitorturiko irakats lanagatik. Kalkulatu gelditzen zaizkion urteko irakats obligazioak.

Lan gehigarri maximoa IT blokean = 6 (asetuta, 8 metatzen baititu)

$GAI_{max} = IAGb/3 = 8$ (justu maximora iristen da)

$JM_{max} = IAGb/3 = 8$ (asetuta, 6+4 metatzen baititu)

$UIA = \max [12, (24-8-8)] = \text{urteko irakaskuntzako 12 kreditu (hau da, USLOk ezartzen duen gutxienekoa)}$

Bigarren kasua: Ikerketan eta transferentzian 3 kreditu eta gestioan eta irakaskuntzan 4 kreditu dituen irakasle laguntzaile doktorea (ILD).

Gainera, 8 kreditu ditu gerora aitorturiko irakats lanagatik. Kalkulatu gelditzen zaizkion urteko irakats obligazioak.

ILD bati 18 kreditu dagozkio eta ez zaizkio aplikatzen JARDUN gehigarriak. Beraz:

$GAI_{max} = IAGb/3 = 6$ (asetuta, egiazta daitezkeen 8 kreditu metatzen baititu)

$JM = 0$

$UIA = \max [9, (18-0-6)] = \text{urteko irakaskuntzako 12 kreditu}$

VI. ERANSKINA: JARDUN PLANAREN APLIKAZIOA IRAKASLE-IKERTZAILE MOTA BAKOITZARI

Irakasle-ikertzaile guztiei eragiten die JARDUNek, maila desberdinetan bada ere. Hona hemen irakasle-ikertzaileen figuren zerrenda eta JARDUNekin duten lotura.

JARDUN murrizketak izan ditzaketen irakasle-ikertzaileak

Honako hauek dira ikerketa/transferentzian eta gestioan/irakaskuntzan eginiko lan gehigarriengatik JARDUN murrizketak izan ditzaketen irakasle-ikertzaileak.

- Unibertsitateko irakasleen kidegoetako irakasleak / irakasle-ikertzaile funtzionarioak
- Lan kontratudun IRI iraunkorrak
- Irakasle atxikiak (USLO aurreko kontratua)
- LEP batean plaza iraunkor bat lortzeko esperoan dauden irakasle ez-iraunkorrak, irakasle atxiki edo laguntzaile doktore plaza batean gehienez egon daitekeen denbora agortu dutenak eta IRI iraunkorren figura baterako akreditazioa daukatenak.
- Lanaldi osoko aldi baterako irakasle lankideak

80.2 artikuluaaren arabera kontratatutako ordezkoi irakasleei, zeinek irakaskuntza eta ikerketa lanak egiten dituzten 240 orduko irakats ahalmenarekin ikasturte bakoitzeko, ezin zaie JARDUN IT GI murrizketarik aitortu (baina bai gerora aitorturiko irakats lana). Bai, ordea, LEP batean plaza iraunkor bat lortzeko esperoan dauden irakasleei ordezkoei, zeinek irakasle atxiki edo laguntzaile doktore plaza batean gehienez egon daitekeen denbora agortu duten eta IRI iraunkorren figura baterako akreditazioa daukaten.

- Talde honen barruan sartzen dira aurreko baldintzak betetzen dituzten ospitaletako irakasleak.

JARDUN murrizketarik izan ezin dezaketen irakasle-ikertzaileak

Honako hauek dira JARDUN murrizketarik eduki ezin duten irakasle-ikertzaileak.



- Lanaldi partzialeko irakasle-ikertzaileak, irakaskuntza hutserako kontratua izateagatik.
- Irakasle laguntzaile doktoreak, babes espezifikoa izateagatik.
- Plaza jabetzan ez duten irakasleak.
-
- **Lanaldi partzialeko irakasleak**

Lanaldi partzialeko irakasleek (hau da, lanaldi partzialeko irakasle iraunkorrek; irakasle elkartuek; eta ordezeko irakasleek, USLOren 80.1 artikulua bidez edo desagertzeko bidean dauden lehengo kontratuen bidez kontratatuek), soilik irakaskuntza lana egin behar dute, hau da, eskolak ematea eta tutoretza orduak egitea.

Irakasle elkartuak

Kontratuaren helburua da irakaskuntzaren bidez ezagutza eta esperientzia profesionala eskaintzea unibertsitateari, esperientzia hori garrantzitsua den gaietan. Zeregin horien barruan ez dira sartzen gestioko eta koordinazioko eginkizun estrukturalak. Irakasle elkartuek gehienez 120 eskola ordu eman ahal izango dituzte ikasturteko.

Aurreko paragrafoko jarduna ez zaie aplikatuko plaza eta izendapena apirilaren 25eko 14/1986 Legearen 105.2 artikulua bidez ondorioz lortu dituzten irakasle elkartuei, eta agintari eskudunek arautuko dituzte haien kontratuen iraupenaren berezitasunak.

Maiatzaren 12ko akordioaren aurreko LOSU 80.1 lanaldi partzialeko ordezeko irakasleak

Kontratuaren barruan sartuko da USLOren 75. artikuluko irakats lana (eskola orduak eta tutoretzak), eta ezin izango du gainditu ordezkaturako irakaslearena. Era berean, kontratatuta dagoen unibertsitatean ordezeko irakasleak ezin izango du bestelako jardunik egin, adibidez ikerketarik edo gestioko eta koordinazioko eginkizun estrukturalik. Hala ere, irakats lanarekin zerikusia duten gestio eta ikerketa zereginak egin ahal izango ditu, Gobernu Kontseiluak maiatzaren 22an berretsitako maiatzaren 12ko akordioan zehazten den bezala.